



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA

## **Gernikako Batzarretxea itxita egongo da zapatu goizez “Gernika” filmatzeko**

Bilbon, 2015eko ekainaren 4an

Datorren zapatuan, ekainaren 6an, jendearentzako itxita egongo da goizean Gernikako Batzarretxea, Bizkaiko zenbait lekutan dagoaneko filmatzen hasita dagoan GERNIKA filmerako zati bat egin ahal izateko. Koldo Serrak zuzendutako luzemetraiak 1937ko apirilaren 26an Gernikak jasan eban hegazkin naziarren bonbardaketea antzetzuko dau. Batzarretxea zabalik egongo da arratsaldean ohiko ordutegian, eta betiko moduan doan.

Euskadunen ikurrik unibertsalena —Gernikako Arbolea— eta Batzarretxearen inguru hori Lurraldeko bisitatuenetakoa da. Udaroen egunero batz bestea 1000 pertsona joaten dira —%77a Euskal Herritik kanpokoak— eta Guggenheim Museoak baino ez dau gainditzen marka hori. Argi dago GERNIKA filmak zabalkundea emongo deusana nazinoarte mailan euskal askatasunen eta forutasunaren ikur dan leku horri. Urtero-urtero 100.000 pertsonatik gora izaten dira Arbolearen aurrean argazkia ataraten dabenak.

Koldo Serrak zuzendutako filmak Condor Legioak Gernika bonbardatu eban egun tamalgarri hartara garoz amodiozko istorioa kontatzeko. Protagonista bien patuak bat egiten dau Gernikan, eta bizi daben abentura buztartu egiten da ikuskizun-prentsaren joera barriagaz eta burrukan ari diran alde bien arteko propaganda-lehiagaz.

“Time” aldizkariko gerra-korrespontsal izandako George Steer kazetariaren edo argazki-kazetaritzako “aita” izan zan Robert Capa argazkilariaren kasuak iturritzat hartuta, GERNIKA filmaren pertsonaiek balio pertsonalak eta sentimenduak gainditu beharko dabez euren karreratan zein gerra latz horretan aurrera egin ahal izateko.

GERNIKA filma Hollywood-eko American Film Market deritxanean sortu zan eta Carlos Clavijo eta Barney Cohen gidoilarien eskutik dator, Barney Cohen, Carlos Clavijo eta José Albaren jatorrizko istorioan oinarrituta.

### **Gernikako Batzarretxearen ordutegia**

Urteko egun guztietan zabalik (Osoko Batzarrak dagozanean izan ezik)

Udan: 10.00 - 14.00 / 16.00 - 19.00

Neguan: 10.00 - 14.00 / 16.00 - 18.00

### **Gidatutako bisitak**

94 625 11 38

batzar.etxea@bizkaia.eus



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

[www.jjgbizkaia.eus](http://www.jjgbizkaia.eus)



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA

## **La Casa de Juntas de Gernika permanecerá este sábado por la mañana cerrada al público por el rodaje de GERNIKA**

En Bilbao, a 4 de junio de 2015

La Casa de Juntas de Gernika permanecerá este sábado, 6 de junio, por la mañana cerrada al público para facilitar el rodaje de una escena de la película GERNIKA que ha comenzado a filmarse ya en diferentes localizaciones de Bizkaia. El largometraje dirigido por Koldo Serra recrea el bombardeo que sufrió la población de la villa el 26 de abril de 1937 por parte de la aviación nazi. El recinto parlamentario se abrirá por la tarde en su horario habitual y, como es costumbre, de forma gratuita.

El lugar donde descansa el símbolo más universal de los vascos – el Árbol de Gernika- es uno de los sitios más visitados del Territorio. En verano, por sus jardines y dependencias pasaron, de media, casi 1.000 personas diarias –el 77% de fuera de Euskal Herria-, un registro sólo superado en época estival por el Museo Guggenheim. Sin duda, la película GERNIKA contribuirá a la difusión nacional e internacional de este conjunto histórico que preserva el espíritu democrático, la foralidad y las libertades vascas. Cada año, alrededor de 100.000 personas se immortalizan junto al roble.

La película del director Koldo Serra nos traslada al fatídico día del bombardeo de la Legión Condor alemana sobre Gernika para contar una historia de amor. El destino de sus dos protagonistas se entrecruza en esta histórica villa y su aventura se enmarca en el auge de la prensa espectáculo, y en la dura batalla de propaganda entre los dos bandos.

Inspirados en periodistas como el corresponsal de guerra de la revista “Time” George Steer o el “padre” del fotoperiodismo Robert Capa, los personajes de GERNIKA deben enfrentarse a sus propios valores y sentimientos para sobrevivir tanto en sus carreras como en el brutal conflicto.

GERNIKA, un proyecto que surge en el American Film Market de Hollywood, está escrita por Carlos Clavijo y Barney Cohen, y basada en una historia original de Barney Cohen, Carlos Clavijo y José Alba.

### **Horario Casa de Juntas de Gernika**

Abierto todos los días del año (excepto plenos)

Verano: 10.00 - 14.00 / 16.00 - 19.00

Invierno: 10.00 - 14.00 / 16.00 - 18.00

### **Visitas guiadas**

94 625 11 38



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

[batzar.etxea@bizkaia.eus](mailto:batzar.etxea@bizkaia.eus)  
[www.jjggbizkaia.eus](http://www.jjggbizkaia.eus)